

**%60**

Xinhua Txinako albiste agentzia ofizialaren arabera, aurten unibertsitateetatik irtetzen diren txinatar ikasleen %60k ez dute lanposturik izango epe laburrean, belaunaldi berriak trumilka sartu baitira unibertsitateetan. %60 horiek 2,4 milioi gazte txinatar dira.

**118**

Europako herrialde txiroenak, Moldaviak Nazioarteko Diru Funtsaren beste kreditu bat lortu du aste honetan. 118 milioi dolarreko kreditua emango dio NDFk datozen hiru urteetan, hamar urterako %0,5eko interesarekin. Moldaviarren %20 pobrezian bizi dira.

**%1.000**

Zimbabweko Estatistika Institutuak inflazioaren datuaren jakinarazpena atzeratu egin du «eperik gabe». Dirudienez, herrialdeko urte arteko inflazioak %1000ko muga gainditu du. Otsailean %782koa izan zen, eta martxoan, %913koa, munduko handiena.



## BOSGARRENA, ADOSTASUNEZ

Bosgarren lan erreformaren akordioa astertean sinatu zuten Espainiako Gobernuak, CEOE eta Cepyme patronalak eta CCOO eta UGT sindikatuek. Jose Luis Rodriguez Zapaterok presidenteak «historikotzat» jo du, 1997. urtekoa baitzen akordio bidez gauzatuak azken erreforma. Erreformari esker, aldi baterako kontratua duten langileen %20 finko bihurtuko direla ziurtatu du Jesus Caldera Lan mi-

ASTEKO IRUDIA

nistroak. Espainiako eragileak pozik daude, baina Euskal Herritik kritikak ez dira falta. ELA eta LAB sindikatuentzat, kaleratzea merkatzea baino ez du erraztuko, eta ez du behin-behinekotasuna (%30 inguru) murrizteko balio. Iritzi horrekin bat dator Eusko Jaurlaritzak. Juan Jose Loroño Lan sailburuordearen aburuz, martxan jarriko diren neurriak ez dira eraginkorrak izango. BALLESTEROS/EFE



[Transgenikoei buruz] «Autoa ez bagenu entseatu, zaldi gainean ibiliko ginateteke oraino»

JEAN PIERRE GOITI  
SUAT ERAKUNDEKO LEHENDAKARIA



«Frantziak jogurta estrategikoa dela erabakitzen duenean, hesteetako arazo bat du»

XAVIER SALA I MARTIN  
EKONOMISTA

ASTE HONETAN ENTZUNA



«Bushek hitz egiten duen bakoitzean petrolio upela dolar bat gehiago garestitzen da»

HUGO CHAVEZ  
VENEZUELAKO PRESIDENTEA

## Geografiarekiko konpromisoguneak (eta II)

Geografiarekiko arduratsu joka dezaketen aktibazio guneen inguruan gabiltzala galdera adibide praktiko baten inguruan birformulatu daiteke. Hego Euskal Herrian 345 enpresa eta 48.000 lanpostu dituen autogintza auxiliarraren arloa fusio eta erosketa dinamikan murgilduta dago. Price-Waterhouse Coopers zerbitzu enpresaren arabera, 2010 urterako lehen mailako hornitzaileen kopurua gaurko mila enpresetatik 20-30 bitartera murriztuko da, eta bigarren mailako hornitzaileen artean (hemen kokatzen dira euskal enpresa gehienak) 10.000tik 800era. Egoera honen aurrean zein da jarrera egokia: inizatiba pribatuari bere bidea egiten utzi edo arlo publikotik gure geografiari kaltea gutxiagotzeko saiakera artikulatu?

90eko hamarkadan dibertsifikazio politika aurrera eramateko klusterren formula abian jarri zen. Kluster hauetan estrategikotzat definitutako sektoreetako enpresak, administrazioa eta beste instituzio batzuk batzen ziren, diagnostikoaren ondoren jardueraren ildo batzuk praktikan jartzeko. Osotze lehen urratsetatik harago administrazio publikoak ez du zeregin aktiborik izan, norabidearen ardura osoa ekimen pribatuari utziz. Hamabost urte geroago gure sare industriala ez da dibertsifikatu. Duela hiru hamarkada munduko krisiaren eragina sakonago jasan zuten jardueratan espezializaturik jarraitzen dugu.

Klusterren ildoak martxan jarri zenean 11 adar estrategiko izendatu ziren. Horien artean aeronautikoa. 1997an Hegan clusterra sortzen da, hiru enpresa nagusirekin: ITP, Sener eta Gamesa. Bederatzi urte geroago hiru hanka horietako batek, Gamesak hain zuzen ere (BBVA eta Iberdrola jabe direla), bere dibisio aeronautikoa saltzea eta eolikoa konterbatzea erabakitzen du. Euskal administrazioek ez dute fitxarik mugitu. Azkenean Castilla La Manchako Aurrezki Kutxak erosi du, Albaceten kokatuko diren hainbat egitasmo aeronautikoen osagarri. Ez al zen bada sektore estrategikoa? Administrazioak industri politikan funtzio proaktiborik izateari uko egin al dio?

Egunen batean hausnartu beharko litzateke dirulaguntzetan zentratutako industri politikaren ordez zein osagarri ez ote den eraginkorragoa eta epe luzera merkeagoa parte hartze enpresarialetan oinarrituriko industri politika. Industriaren promoziorako jaiotako SODENAK eta SPRIK enpresetan parte hartze egonkorrarako egitura sortzeari uko egin zioten aspaldi. 3-R Planak enpresei emandako abalen truke gidaritza indikatiborako bitartekoak adosteko aukera galdu izana kritikatu izan da. Ez enpresaren kontrol osoa izateko, bai ordea sare produktiboak behar dituen lankidetzak eta kudeaketa praktika batzuetara zuzentzeko.

Axola izanez gero tresnak egon badaude. Horra hor aurrezki kutxen potentzialtasuna. Erakunde hauek administrazio publikoaren menpe daude. Gure espazio sozioekonomikoan eragiten dute ez bakarrik obra sozialaren bitartez, parte hartze industrialen bitartez ere. Zergatik ez aurrezki kutxak abiapuntu, dibertsifikaziora zuzenduriko politika industrial aktiboa garatu eta erabakiguneak eraiki? Ildo honetan badugu MCCren adibidea. Beronen hazkuntza eta dibertsifikazioa ezin daiteke uler Lan Kide Aurrezki Kutxarekin izandako sinbiosiarik gabe.

Sindikatuak badute arrazoirik enpresa pribatizatu behar denean, Naval kasu, aurrezki kutxek jabegoaren partaide bilaka daitezela eskatzeko. Globalizazio produktiboa ahularazten dituen erabakiguneen aurkako joera eskatzen dute, geografiarekiko konpromisoetan sendotasuna. Kontrako aldean, adierazgarria ere Nazioarteko Diru Fondeoak aurrezki kutxen pisu politikoa kritikatu izana.



Joseba Garmendia